

2008ko urtarrilaren 15ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZITAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Urjentziako Ez Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- URJENTZIARI BURUZKO PRONUNTZIAMENDUA.
- 2.- 1.8 UNITATEKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN BARNEAN LEANDRO GALATASEK EGINDAKO MEHATXUEN AZTERKETA ETA ERABAKIAK HARTZEA

Aduna, 2.008ko urtarrilaren 14an.

ALKATEA.

2.008KO URTARRILAK 15.

EZ OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:

Arantza Aburuza Alkorta.

Jose Antonio Irazu Mendizabal.
Miren Aburuza Alkorta.
Josu Amilibia Alsua.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Iker Iturrioz Lekuona.
Ainara Iturrioz Lekuona.

Bertaratu gabea:

Iñor ez.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zortziko urtarrilaren hamabosteko hogei ordu eta hamar minutu izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA: **URJENTZIARI BURUZKO PRONUNTZIAMENDUA.**

Idazkariak aipatzen du, azken gertakari larriak ikusita, hau da, Alkatea eta familiaren aurka izandako mehatxuak... eta zerbait egiteko premia dagoela iruditzen denez, urjentziazko batzar berezi hau deitzea erabaki duela Alkateak, Udalbatzak hala erabaki ondoren.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, urjentziari buruzko pronuntziamendua onartzea erabaki du.

BIGARREN PUNTUA:

1.8 UNITATEKO DESJABETZAPEN PROZEDURAREN BARNEAN LEANDRO GALATASEK EGINDAKO MEHATXUEN AZTERKETA ETA ERABAKIAK HARTZEA.

Udalbatzak, aho batez, 1.8 unitateko desjabetzaren prozeduraren barnean Leandro Galatasek egindako mehatxuen inguruan ondoren aipatzen den mozioa onartu du:

1.- Hautetsi guztiok bat egiten dugu 1.8 unitateko hirigintza-proiektuarekin, eta burutzeko egin beharreko pauso guztiak egiteko konpromisoa berresten dugu.

2.- Leandro Galatasen heriotza-mehatxuak jaso dituzten herritarrei elkartasuna eta babes adierazten diegu.

3.- Zazpi hautetsiok konpromisoa hartzen dugu asteazkenean, urtarrilaren 16an, eguerdiko ordu batean Tolosako epaitegian egingo den epaiketara agertzeko, eta herritarrei ere gonbidatzen zaituztegu bertara azaltzeko.

4.- Erabaki honen berri helaraziko diegu komunikabideei.

Beste Aztergairik gabe, hogeit hamar ordu eta hogeita hamar minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.